

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, USURBILGO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Usurbilgo Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Toki Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazio kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, HKEEk administrazio kontratazioa arautzen duten lehia printzipioak urratu direla azpimarratu du, zerga ikuskaritza alorrean laguntza eta lankidetzaz zerbitzuaren lizitazioan 2007an egindako gastu-estimazio okerragatik, 2011ko otsailera arte esleitutakoa; gainera, enpresa esleipen hartzailea ordutik 2011ko urtarrilean onartutako Zerga Ikuskaritzako Planean jasotako jarduerak gauzatzen ari dela adierazi du.

Bestetik, Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzeke bi lursail besterentzeko kontratuan lizitazio zenbatekoa zerbitzu teknikoek egindako tasazioa baino txikiagoa zen eta espedientean ez da justifikatu indarreko araudiaren arabera lurzoruen jasanarazpen balioari ezarritako mugaz azpitik ezartzea prezioaren hobekuntza.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, zenbait akats azaleratu ditu, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 1,9 mila euroan murriztu dutenak.

Kirolaren Udal Patronatua Erakunde Autonomoak legea betetzeari dagokionez, HKEEk dio zuzentasunez bete duela legea, txostenean jasotako hainbat ez-betetze kenduta.

Erakunde Autonomoaren Urteko Kontuei dagokienez, berriz, HKEEK adierazi du txostenean jasotako salbuespenen garrantzia aintzat hartuta ez dezakeela horien gaineko iritzia plazaratu, kontularitzako sistemak dituen ahulezien eta indarreko araudiak eskatzen dituen zenbait finantza egoera aurkeztu ez izanaren ondorioz. Azpimarratzekoa da, gainera, udal artekariak ez dituela kontabilitatearen fiskalizazio eta ikuskaritza lanak bete; ezta finantza kontrolaren egitekoak ere, legezko araudiak eta Patronatuaren estatutuek agintzen dutena.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio ataletan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez jakinarazi da 2011ko ekitaldian aurrezki garbia negatiboa izan dela; horri Diruzaintza Geldikinak izan duen murrizketa esanguratsua gehitu behar zaio; guzti honek Udala inbertsioei aurre egingo dien berezko finantzaketa sortzeko etorkizunari begira zailtasun egoeran jartzen du, baita 2009ko UFFFri dagokion itzulketari eta etorkizuneko finantza zamei aurre egiteko ere.